**ZARAUZKO UDALAREN ETA GARAPEN JASANGARRIAKO ESPAINIAKO SAREAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIAK 2015EKO IRAILAREN 25EAN ONARTUTAKO GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN GAINEKO LANKIDETZA-SINERGIAK SORTZEKO**

Madril, 2025eko apirilaren 10ean

**BILDU DIRA**

Alde batetik, **Zarauzko Udala;** erakundearen alkate eta ordezkari Xabier Txurruka Fernandez jaunak ordezkatzen du, Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko martxoaren 31n hartutako erabakian jasotakoaren arabera.

Eta bestetik, Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sareko (aurrerantzean, **REDS-SDSN Spain**) zuzendaria, Marta Ares Godoy andrea [redacted] erakunde horren legezko ordezkaria, 2024ko urriaren 4an María del Rosario Algora Wesolowski notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez eman zitzaizkion ahalmenen arabera.

Ordezkatzen dituzten erakundeen izenean agertu dira bi aldeak, eta hitzarmen hau formalizatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri. Hori dela eta, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENA.** Nazio Batuek 2015eko irailaren 25ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak garapen jasangarrirako 17 helburu (GJH) finkatu zituen, pobreziari amaiera emateko, desberdintasunaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko. Helburu horiek aukera paregabea eskaintzen dute eraldaketa global baten oinarriak ezartzeko eta garapen-eredu barneratzaile eta jasangarrien alde egiteko, bai nazioan, bai nazioartean.

GJHak 17 helburu eta 169 xede dira, mundua jasaten ari den arazo sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak konpontzeko, 2015-2030 aldian.

**BIGARRENA.** GJHen onespenak ateak ireki dizkio garapen jasangarriko aro berri bati. Aro horretan, pertsona bakoitzaren duintasuna eta balioa baieztatzen eta errespetatzen dira, eta herritar guztiek gaitasuna izango dute garatzeko eta beren bizitza definitzeko, ekosistemak baloratzen eta babesten dituen planeta batean. Nazio Batuetan lortutako akordioak agenda unibertsal, eraldatzaile eta integrala eskaintzen du, alegia, inflexio-puntu historiko bat. GJHek gizateria osoaren ongizatea zaintzen dute, eta lankidetzaren eta bizikidetza baketsuaren premia oinarrizkoenak islatzen dituzte.

**HIRUGARRENA.** 2012an Garapen Jasangarrirako Soluzioen Sarea sortu zen (*Sustainable Development Solutions Network*, SDSN ingelesez), Nazio Batuen idazkari nagusi ohi Ban Ki-moonek abiarazitako ekimen globala. Horren eginkizuna da (i) sektore akademikoaren esperientzia eta baliabide tekniko zein zientifikoak mobilizatzea, sektore pribatuarekin eta instituzionalarekin batera, eta (ii) garapen jasangarrirako irtenbide eraldatzaileak ematea, garapen hori hiru dimentsiotan ulertuta (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).

2015ean, Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea sortu zen (REDS-SDSN Spain), SDSNaren atal nazionala Espainian, eta irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa eratu zen. REDS-SDSN Spain eragile anitzeko sarea da; unibertsitateak, administrazio publikoak, enpresak eta gizarte zibila biltzen ditu, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak Espainian hedatzen eta ezartzen laguntzeko.

Adierazitako guztiagatik, hitzarmen hau sinatzen duten aldeek honako hau

**ADOSTEN DUTE**

**LEHENA. Xedea**

Hitzarmen honen xedea da Zarauzko Udalaren eta REDS-SDSN Spain sarearen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmen bat ezartzea, elkarrekin zenbait jarduera eta proiektu garatzeko, 2030 Agenda sustatzeko eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko esparruan.

Hitzarmen honek alde sinatzaileen arteko lankidetza-esparru orokor bat ematen du, eta hirugarren klausulan aurkeztutako jardueretan gauzatzen da ("Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarearen konpromisoak" atalean).

**BIGARRENA. Zarauzko Udalaren konpromisoak**

Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du, hitzarmen hau sinatuta, GJHak betetzeko jarduerak sustatzeko eta garatzeko, 2030 Agendaren esparruan.

Zehazki, Zarauzko Udalak honako betebehar hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

a) Agenda globala babestea, tokiko mailan jarduteko konpromisoa hartuz, bere programetan 2030 Agenda txertatzeko eta GJHak betetzeko;
b) Garapen jasangarriaren aldeko politikak sustatzea eta aplikatzea;
c) Klima-aldaketaren aurkako borroka eta Hiri Agenda sustatzea eta bultzatzea, GJHekin lotutako maila anitzeko beste agenda batzuen artean.
d) Garapen jasangarrirako lankidetza-aliantzak sustatzea;
e) Zarauzko udalerrian REDS-SDSN Spain sarearen bidez egiten diren jarduerei eta/edo ekimenei laguntza ematea;
f) REDS-SDSN Spain sareak esperientziak trukatzeko sustatutako foroetan, ekitaldietan edo bestelako jardueretan parte hartzea;
g) Bi aldeei lotutako albiste edo egintza interesgarrien berri ematea webgunearen bidez;
h) Urteko 2.000 euroko kuota ordaintzea, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean.

2025. urteko ekarpena urte horretako apirilean ordainduko da, eta hitzarmena indarrean dagoen hurrengo urteetako ordainketak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan egingo dira.

2025. urteari dagokion ekarpen ekonomikoa 1 1201.226.99.924.00 2025 (7770) aurrekontu-partidaren kontura ordainduko da, eta Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du behar adina kreditu kontsignatzeko hitzarmen honen indarraldiko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

**HIRUGARRENA. Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarearen konpromisoak**

a) Entitate publikoa erakunde laguntzaile gisa aitortzea eta ikusaraztea webgunean eta dagozkion plataformetan;
b) GJHetan prestakuntza jasotzeko aukera ematea: SDG Academy katalogoa (espainiarra) eta REDS-SDSN Spainek egindako gidak eta prestakuntzako beste baliabide batzuk;
c) Zarauzko Udalak garapen jasangarriari buruz egiten dituen jarduerak eta ekimenak zabaldu eta ikusaraztea REDS-SDSN Spain sareko kanaletan, adibidez, newsleterrean eta beste komunikabide batzuetan;
d) REDS-SDSN Spain sareak antolatutako ekitaldi eta jardueretan Zarauzko Udalaren parte-

hartzea kanalizatzea; adibidez, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroa, 2030 Agendari eta garapen jasangarriari buruzkoa, erakunde honek, REDS-SDSN Spain sareak, Eusko Jaurlaritzak eta UNESCOk antolatutakoa.

e) Garapen Jasangarrirako Helburuak aztertzeko urteko txostena egitea, hitzarmen honek irauten duen urte bakoitzeko.

**LAUGARRENA. Jarraipen eta kontrol batzordea**

Jarraipen-batzorde bat sortuko da hitzarmen hau betetzen eta garatzen ari den ikusteko. Lau kidek osatuko dute, erakunde sinatzaile bakoitzeko bi ordezkarik.

Zarauzko Udalaren aldetik, 2030 Agendaren gaia esleituta duen zinegotzia —Zarauzko Udaleko beste norbaiti delegatu ahalko dio— eta hark izendatutako teknikari bat. Eta REDS-SDSN Spain enpresaren aldetik, hango zuzendaria eta hark izendatutako beste pertsona bat.

Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, eta hitzarmena behar bezala gauzatzeko behar den aldi guztietan, aldeetako edozeinek hala eskatuta.

Jarraipen-batzordearen lana izango da (i) hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzea, (ii) hitzarmena garatzeko eta gauzatzeko behar diren jarduketa guztiak bultzatzea, eta (iii) sortzen diren interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea. Jarraipen-batzordea osatzen duten pertsona guztiei bidali beharko zaizkie batzordearen aktak, erabakiak edo txostenak.

**BOSGARRENA. Kontratuaren indarraldia**

Lankidetza-hitzarmen honek bi urteko iraupena izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta, amaitzen denean, luzatu ahal izango da, bi aldeek berariaz hala adosten badute. Hitzarmenaren luzapena bi aldeek sinatutako berariazko akordioen bidez gauzatuko da, edo erabaki hori adierazten duen idatzizko komunikazioaren bidez.

**SEIGARRENA. Hitzarmena aldatzea**

Hitzarmenaren edukia aldatzeko, bi aldeen adostasuna beharko da.

**ZAZPIGARRENA. Hitzarmena iraungitzea**

Hitzarmena iraungitzat joko da hitzartutako denbora luzapenik gabe amaitzen denean.

Gainera, lankidetza-hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoi izango dira honako hauek:

a) Aldeetako batek bere gain hartutako edozein betebehar eta/edo bertan ezarritako klausulak ez betetzea, edo arlo horretan indarrean dagoen araudia ez betetzea. Horrek ahalmena emango dio beste aldeari hitzarmena suntsiarazteko.
b) Aldeek hala adostea, bietako batek eskatuta eta hiru hilabete lehenago jakinarazita.
c) Ezinbesteko arrazoiak egotea, edo gatazkak modu baketsuan konpontzeko gainerako sistemak egotea.
d) Legean aurreikusitako beste edozein arrazoi.

**ZORTZIGARRENA. Datuen babesa**

Hitzarmen honen betebeharrak bat etorriko dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako eskakizunekin, informazioaren eta emaitzen konfidentzialtasunari dagokionez, eta legezko eskakizunak betetzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak, administratiboak, informatikoak eta antolakuntzakoak aplikatuko dira, eta, bereziki, datuen segurtasuna eta osotasuna bermatuko da, bai eta datuen babesa ere, baimendu gabeko aldaketen, galeren, tratamenduen edo sarbideen aurrean.

**BEDERATZIGARRENA. Izaera eta auzigaiak**

Hitzarmen hau ez da sartzen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremuan.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du aldeen artean sortzen diren auziak ebazteko eskumena, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Azaldutako guztiarekin bat etorriz eta sinatzaileek dituzten eskumenak erabiliz, hitzarmena sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

| REDS-SDSN Spain sarearen aldetik | Zarauzko Udalaren aldetik |
|---|---|
| Marta Ares Godoy<br>REDS-SDSN Spain sarearen zuzendaria | Xabier Txurruka Fernandez<br>Zarauzko Udaleko alkatea |
| 14265823G MARTA ARES (R: G87281309)<br>Firmado digitalmente por 14265823G MARTA ARES (R: G87281309)<br>Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=ASOCIACIÓN REDS - RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE, 2.5.4.97=VATES-G87281309, sn=ARES GODOY, givenName=MARTA, serialNumber=14265823G, cn=14265823G MARTA ARES (R: G87281309), 2.5.4.13=Reg:REGISTRO NACIONAL DE ASOCIACIONES/Hoja:0/Tomo:0/Sección:1/Libro:0/Folio:0/Fecha:05-10-2015/Inscripción:0<br>Fecha: 2025.04.09 18:35:00 +02'00' | XABIER CHURRUCA FERNANDEZ - 44139942K<br>Firmado digitalmente por XABIER CHURRUCA FERNANDEZ - 44139942K<br>Fecha: 2025.04.10 09:32:01 +02'00' |

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ Y LA RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE PARA GENERAR SINERGIAS DE COLABORACIÓN SOBRE LOS OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE APROBADOS POR LA ASAMBLEA GENERAL DE NACIONES UNIDAS EL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2015**

Madrid, 10 de abril de 2025

**REUNIDOS**

De una parte, el **Ayuntamiento de Zarautz**, representado por D. Xabier Txurruka Fernandez, alcalde y representante de la entidad, según consta en el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz el 31 de marzo de 2025.

Y de otra, la directora de la Red Española para el Desarrollo Sostenible (en adelante, **REDS-SDSN Spain**), Dña. Marta Ares Godoy, [redacted] representante legal de dicha entidad, según las facultades que le fueron conferidas mediante escritura pública de fecha 04 de octubre de 2024, otorgada ante la Notaria Doña María del Rosario Algora Wesolowski.

Ambas partes comparecen en nombre de las instituciones a las que respectivamente representan, de modo recíproco se reconocen capacidad para formalizar el presente convenio y por ello

**EXPONEN**

**PRIMERO.** Que la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible, aprobada por las Naciones Unidas el 25 de septiembre de 2015, adoptó un conjunto de 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) para poner fin a la pobreza, luchar contra la desigualdad y la injusticia, y hacer frente al cambio climático. Los mismos constituyen una oportunidad única para sentar las bases de una transformación global que conduzca hacia modelos de desarrollo incluyentes y sostenibles, a nivel nacional e internacional.

Los ODS son un conjunto de 17 objetivos y 169 metas destinadas a resolver los problemas sociales, económicos y ambientales que aquejan al mundo, cubriendo el periodo 2015-2030.

**SEGUNDO.** La adopción de los ODS ha abierto las puertas a una nueva era de desarrollo sostenible en la que la dignidad y el valor de cada persona es afirmado y respetado, en la que todos y todas las ciudadanas tendrán la capacidad de desarrollarse y definir su propia vida en un planeta que valora y protege sus ecosistemas. El acuerdo alcanzado en Naciones Unidas ofrece una agenda universal, transformadora e integral que supone un punto de inflexión histórico. Los ODS velan por el bien común de toda la humanidad y reflejan las necesidades más básicas de cooperación y coexistencia pacífica.

**TERCERO.** En el año 2012 nace la Red de Soluciones para un Desarrollo Sostenible (Sustainable Development Solutions Network, SDSN en sus siglas en inglés), una iniciativa global lanzada por el ex secretario general de Naciones Unidas, Ban Ki-moon. Su misión es movilizar la experiencia y los recursos –tanto técnicos como científicos– del sector académico, en colaboración con el sector

privado e institucional, aportando soluciones transformadoras para el desarrollo sostenible, entendiendo éste en sus tres dimensiones (social, económica y medioambiental).

En 2015 nace la Red Española para el Desarrollo Sostenible (REDS-SDSN Spain), capítulo nacional de SDSN en España, constituyéndose como asociación sin ánimo de lucro. REDS-SDSN Spain opera como una red multiactor que aglutina universidades, administraciones públicas, empresas y sociedad civil con la misión de apoyar la difusión e implementación de la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en España.

Por lo anteriormente expresado, las partes firmantes del presente convenio

**ACUERDAN**

**PRIMERO. Objeto**

El presente convenio tiene por objeto el establecimiento de un Convenio Marco de colaboración entre el Ayuntamiento de Zarautz y REDS-SDSN Spain para el desarrollo conjunto de actividades y proyectos en el marco de la promoción de la Agenda 2030 y el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

El presente Convenio proporciona el marco de colaboración general entre las partes firmantes, y se materializa en las actividades presentadas en la cláusula tercera, sobre “Compromisos de Red Española para el Desarrollo Sostenible”.

**SEGUNDO. Compromisos del Ayuntamiento de Zarautz**

El Ayuntamiento de Zarautz se compromete con la firma del presente convenio a la promoción y desarrollo de actividades para el cumplimiento de los ODS en el marco de la Agenda 2030.

En concreto, el Ayuntamiento de Zarautz se compromete a cumplir las obligaciones de:

i) Apoyar la agenda global comprometiéndose a actuar a nivel local para incorporar a sus programas la Agenda 2030 y el cumplimiento de los ODS;
j) Promover y aplicar políticas en favor del desarrollo sostenible;
k) Promover y favorecer la lucha contra el cambio climático y la Agenda Urbana, entre otras agendas multinivel relacionadas con los ODS;
l) Promover alianzas de colaboración para el desarrollo sostenible;
m) Dar apoyo a las actividades y/o iniciativas que a través de REDS-SDSN Spain se lleven a cabo en el municipio de Zarautz;
n) Participar de los foros, eventos u otras actividades, promovidas por REDS-SDSN Spain, para el intercambio de experiencias;
o) Informar a través de su página web sobre aquellas noticias o actos de interés vinculados a ambas partes;
p) Pago de una cuota anual de 2.000€, mientras el presente convenio esté vigente.

El pago de la aportación correspondiente al año 2025 se realizará en el mes de abril de dicho año, y los pagos correspondientes a los años sucesivos de vigencia del convenio se realizarán durante el primer trimestre de cada año.

La aportación económica correspondiente al año 2025 se realizará con cargo a la partida presupuestaria 1 1201.226.99.924.00 2025 (7770), y el Ayuntamiento de Zarautz se

compromete a consignar los créditos suficientes en los presupuestos de los sucesivos ejercicios de vigencia del presente convenio.

**TERCERO. Compromisos de Red Española para el Desarrollo Sostenible**

f) Reconocer y visibilizar a la entidad pública como entidad colaboradora en la web y en las plataformas pertinentes;
g) Dotar de acceso a formación ODS: catálogo SDG Academy (español) y guías y otros recursos formativos elaborados por REDS-SDSN Spain;
h) Difundir y visibilizar las actuaciones e iniciativas del Ayuntamiento de Zarautz, en materia de desarrollo sostenible en los canales REDS-SDSN Spain como la newsletter y otros medios de comunicación;
i) Canalizar la participación del Ayuntamiento de Zarautz en eventos y actividades organizadas por REDS-SDSN Spain, como el curso de verano de la UPV (Universidad del País Vasco), organizado por esta institución, REDS-SDSN Spain, el Gobierno Vasco y UNESCO Etxea, sobre Agenda 2030 y desarrollo sostenible;
j) Elaboración de un informe anual de análisis de Objetivos de Desarrollo Sostenible por cada año de duración del convenio presente.

**CUARTO. Comisión de seguimiento y control**

Para el seguimiento de la ejecución y desarrollo del presente convenio se crea una comisión de seguimiento, compuesta de cuatro miembros e integrada por dos representantes de cada una de las instituciones firmantes.

Por parte del Ayuntamiento de Zarautz, el/la concejal/a que tiene atribuida la materia correspondiente a la Agenda 2030, que podrá delegar en otro/a del Ayuntamiento de Zarautz, y un técnico/a designado por el mismo. Por parte de REDS-SDSN Spain, la persona que ostente su Dirección y la persona que ella misma designe.

La comisión se reunirá, al menos una vez al año y cuantas veces sea preciso para la buena marcha de la ejecución del convenio, a petición de cualquiera de las partes.

Corresponderá a la comisión de seguimiento velar por el correcto cumplimiento del convenio, impulsando la realización de cuantas actuaciones sean necesarias para su desarrollo y ejecución, así como resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse. Las actas, acuerdos o informes que, en su caso, emita la comisión, deberán remitirse a todas las personas que componen esta comisión de seguimiento.

**QUINTO. Vigencia del convenio**

El presente convenio de colaboración tendrá una duración de dos años a partir del día de su firma y será prorrogable a su término mediante acuerdo expreso de ambas partes por igual periodo. La ampliación del convenio se materializará mediante acuerdos específicos, suscritos por ambas partes o por comunicación escrita recíproca que exprese dicha decisión.

**SEXTO.- Modificación del convenio**

La modificación del contenido del convenio requerirá el mutuo acuerdo de las partes.

**SÉPTIMO. Extinción del convenio**

El presente convenio se considerará extinguido por expiración del tiempo convenido sin ser prorrogado.
Además, será causa de resolución del presente convenio de colaboración:

e) El incumplimiento por una de las partes de cualquiera de las obligaciones contraídas y/o cláusulas establecidas en él, así como el incumplimiento de la normativa vigente en la materia, lo que facultará a la otra parte para la resolución del mismo.
f) El mutuo acuerdo de las partes, a instancia de una de ellas, previo aviso de tres meses.
g) La concurrencia de causa de fuerza mayor o de los restantes sistemas de resolución pacífica de conflictos.
h) Cualquier otra causa prevista en las leyes.

**OCTAVO. Protección de datos**

El cumplimiento de las obligaciones de este convenio se ajustará a las exigencias derivadas de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales , en lo que corresponde a la confidencialidad de la información y los resultados, aplicando las medidas de carácter técnico, administrativo, informático y organizativo que resulten necesarias para cumplir los requisitos legales y, en particular, garantizando la seguridad e integridad de los datos y su protección frente a alteraciones, pérdidas, tratamientos o accesos no autorizados.

**NOVENO. Naturaleza y cuestiones litigiosas**

Este convenio queda excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente para resolver las cuestiones litigiosas que pudieran suscitarse entre las partes, conforme a lo establecido en los artículos 1 y 2 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

De conformidad con todo lo expuesto y en el ejercicio de las atribuciones de que son titulares los firmantes, suscriben el presente convenio en el lugar y fecha en el encabezamiento indicado.

| Por REDS-SDSN Spain | Por el Ayuntamiento de Zarautz |
|---|---|
| Marta Ares Godoy<br>Directora de REDS-SDSN | Xabier Txurruka Fernandez<br>Alcalde del Ayuntamiento de Zarautz |
| 14265823G<br>MARTA ARES<br>(R: G87281309)<br>Firmado digitalmente por 14265823G MARTA ARES (R: G87281309)<br>Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=ASOCIACIÓN REDS - RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE, 2.5.4.97=VATES-G87281309, sn=ARES GODOY, givenName=MARTA, serialNumber=14265823G, cn=14265823G MARTA ARES (R: G87281309), 2.5.4.13=Reg:REGISTRO NACIONAL DE ASOCIACIONES/Hoja:0/Tomo:0/Sección:1/Libro:0/Folio:0/Fecha:05-10-2015/Inscripción:0<br>Fecha: 2025.04.09 18:35:24 +02'00' | XABIER CHURRUCA FERNANDEZ - 44139942K<br>Firmado digitalmente por XABIER CHURRUCA FERNANDEZ - 44139942K<br>Fecha: 2025.04.10 09:32:39 +02'00' |